



Gure Ondaria zaindu guran

ZUBIXAK (I)

Derrigorrezkoa ete da Eskolatxoneko eta Tetuango zubixak botatia?

Erroten ondoren, presairi buruz eskribituko asmua neukan, zubixak geruagorako itxizaz. Baiña igazko Azaruaren 26xan Oñatiko Udalian ospatu zan Gobernu-batzordian gure herri-patrimoniarentzako eskabide kezkarri bat egin xakon Jaurlaritzako Euskal Kultur Ondariaren Zentruari: Oñatiko gune historikuan geraketan xakun antxiñako bi zubi erreserba arkeologikoko kalifikaziñotik kentzeia, hain zuzen. Zubixok **Eskolatxonekoa** eta **Tetuangua** (Ramon Irizar kalekoa) dittugu. Horretxegatik heldu dostet gaur zubixairi.

Oñatiko Udalaren Gobernu-batzordiak eskabide hori egitteko agerketan dauen arrazoia uraundixena da: problema horri aurre egitteko proiektua buruketan diharduela dixo Udalak; eta proiektu horrek Iturritxo eta pelotalekuaren artian daguen erreka-zatixa hartzen dauenez, bittarte horretan diran bi zubixok bota eta barrixak jasotia ezinbestekotzat joten dauela, arazua konponketia gura bada. Baiña Bittorixako Gobernuak Oñatiko Gune Arkeologikua Kultur Ondasun lez kalifikaitteko espedientia moldaitten dihardu oraintxe; espediente horretan, beste gauza askoren artian, zubixak be sartzen dira eta aittatu dittugun bixok be bai, jakifia, berihala ikusiko dogun moduan, kaleko zubi historikuen saillian oso samar geldiketan diran bakarrenetakuak dira eta.

Uraundixen arazua geruago eta larrixagua dala eztago ukaketarik eta konponbideren bat billatu biharko xako. Baiña hainbeste mende iraun dauen zubixak botatia, samurrena izan arren, ezlot uste egogixena danik. Gaitzaren sustarretara jo bihar dogula pentsaitten dot, azkenengo 25 urte honeittan gure Kale-erreak aldaketa oso sakonak izan dittuelako: erreka hau, Portalekutik behera batez be, moztu, desbideratu, kanalizau eta estutu egin da; errekiarenak ziran bazterretan etxiak eta garajiak jaso dira; eta urarentzako berezko igeslekuak ziran ortuak asko urrittu dira. Hartara, erreka zuzenago eta estuaguan urak abixada haundixagua hartzen dau eta, antxiñako urtenbiderik topaitten eztauenian, bere ertzian edo gaiñian jasotako eraikuntzak hondaketan dittu. Gogoratu daigun esaera

zaharra: Ehundaka urtietan, ura lehengo bidietan.


Aurrekuaz gain bada historixa eta arkeologia aldetiko beste arrazoi inportante bat: Oñatiko gune zaharrian, hau da, kale aldian, gutxienez bederatzizubi egon dira historixan zihar:

* Olabarrieta errekan **Murgizubieta** San Martingo presa onduan eta Murgixa auzorako bidian. Zabaldua baldin badago be, egittura zaharra gordeten dau orainddiok.

* Apur bat beheratxuago, Olabarrieta erreka Ubao errekiarekin alkarketan dan inguruan, **Portalekoa** izeneko zubixa eguen. Portalekutik San Martiñera igoteko ebalten zan eta eta San Migel errotarako urak batzen zittuan presiarekin batera galdu zan orain dala hogei bat urte, Lekunbarritik Bidaurretarako kamiño barrixa zabaldu zanian.

* Erreka desbideratuta gero, ixa zihero ezkutauta eta ur barik geldittu da Oñatido zubirik zahar eta polittenetakua: Iturritxon, Urain torretxiaren onduan dan **Zubiaur** izeneko zubi gotikua.

* Atzeko kaletik Lekunbarri aldera fateko, garai bateko **Motxoneneko** zubixa dakogu zutik orainddiok. Gaur egunian Eskolatxoneko zubitza ezaguketan dogun berbera. Nahiz eta obra zaharra gaiñetik desitxuratuta egon, arku zaharra argi eta



Eskolatxoneko Zubixaren arku

Galizia
taberna

Zumalakarregi, 22
Tfnoa. 78 22 08

Espezialitateak :
Urdaiazpiko iberikoa
Bokadiloak
Pintxoak
Plater konbinatuak
OÑATI

ARKUPE

LORADENDA


Foru Enparantza, 7 - OÑATI - Tfnoa. 78 29 80

garbi ikusten da. Paraje honetan zubixa ezezik, Tetuan eta Triana aldera doian galtzadia be nahikua ondo konserbaitten zan San Juan bezperako uramillak hondatu eben arte. Kale inguruan geraketan dan galtzada bakarrenetakua izanda, konponketia merezi dau, duda barik.

* Atzeko kaletik Tetuan auzunara eta Bidebarrietara fateko zubixari, barriz, **Zubibarri** esaten xakon antxiña, punturarte Tetuango zubixa, eta oraingo gaztiak Makaleneko edo Ramon Irizar kaleko zubixa deiketan xaue. Honak be, garai desberdinetako zatixak euki arren, ondo samar gordeten dau jatorrizko egitturia.

* Errekan behera jaitsiaz, hurrengo zubixa parroikia eta sasoi bateko jesuitten etxiaren artian eguen, plazia eta San Juan kale bittartian, orain taxisten geralekua dan tokixan. **Zubikua** izenez ezaguketan zan. XIX. mendian ezkutauko zan, jesuitten komentua eta elizia bota eta harein ordez Kafe Zaharreko etxia eta orain arte berdura-plazia izan dana jaso ziranian.

* Aittatu barri dogun zubi horren inguruan Arranoaitz errekiarekin batu eta parroikia klostro erdittik pasau ondoren (klostroa be bi zubiren gainan dago jasota, jakiña), **Kolejialdeko zubi** azpittik pasaitten da Kale-erreikia, Unibersidade ondolik; zubi hau guztiz barriztauta dago eta, gauzatxoren bat izan ezik, etxako zubi zaharraren aztarranik geldiketan.



Iturritxoko zubixan estalitta geldittu dan alderdixa

* Arranoaitz edo Antzuelas errekan, hau da, Errekalde eta Mendikokaletik behera plazaraiño datorren erreka gainan be bi zubi ziran: bata **Portukua** Mendikokale eta Santa Marina bittartian, gaur egunian zihero tapauta daguea. Inguru hartan zan Puerto Hernanitarren etxetik etorkixon izena.

* Bestia, barriz, plazan bertan eguen eta parroikia/Kale zahar/Zazpibideta aldetik Kale barrira fateko, derrigorrian pasau bihar zan. **Plazakua** esaten xakon eta XVIII. mendian plaza barrixa itxuraketan hasi ziranian, erreikia tapaitteko, bota egin zan.

Aittatu dittugun bederatzi zubixotatik hiru dira gaur antxiñako eran

ikusteko moduan dagozenak: Murgizubietakua (San Martin), Motxonenekua (Eskolatxo) eta Zubibarri (Tetuan). Zubiaurrekua (Iturritxo) itsututa dago alde batetik eta bestekaldia ezin da ikusi, inguruko etxe-ostetatik ezpada. Gaifierako guztixak botata, estalitta edo zihero barriztauta dagoz.

Badakit arazo erreza eztana eta interes asko dirana tartian. Baiña hala ta guztiz be, geraketan xakun hiru zubi historiko horreittako bi bota baiño lehen, eztozue uste problema honi buruzko **eztabaida publiko** sakon bat plazaraketia merezi dauela, danon artian urtenbideren bat topau daigun?

JERARDO ELORTZA



LASAGABASTER
ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 - ARRASATE - Tfnoa. 79 27 27 / 79 13 55